

# Compte rendu du Conseil Municipal du 27 janvier 2020

## 2020ko urtarrilaren 27ko Herriko Kontseilua

Présents / Hor zirenak : Mmes BARBIER, ETCHART-DUHALDE, ECHEVERTZ, ETCHEVERRY, OXARANGO et MM. BARNECHE, BISCAY, ETCHEBERRY, ETCHEGARAY, HERNANDEZ, SOULIGNAC

Absents excusés / Ezin etorria jakinarazia zutenak : Mme GARY

Aiherrako Herriko Kontseilua 2020ko urtarrilaren 27an bildu zen Herriko Etxeko kontseilu gelan, 20:30ean, eta hau deliberatu zuen:

### **1. Herriko jantegiaren handitzea – Merkatuen eta merkatuen gehigarrien izenpetzeko baimena**

Herriko jantegiaren handitzeko obren kariatara kontsulta prozedura bat eraman da prozedura egokituaren bidez, eta merkatuak hauei eman zaizkie:

ZATIA	ZATIEN FINKATZEA	ENPRESAK	ZENBATEKOA (BEZa gabe)
1	Bideak eta sareak	SARL IBANEZ ET FILS	7 703.50 €
2	Egitura nagusia	SARL GAMIETA	43 955.97 €
3	Zureria - Teilatua	SARL FOURCADE ET FILS	21 288.56 €
4	Kanpoko leihoak	SARL MIROITERIE DU GAVE	8 120.00 €
5	Barneko leihoak	SARL IRIART JEAN-PIERRE	4 250.00 €
6	Plastre lanak	SARL P PLATRE	14 393.38 €
7	Lauza – Faiantza lanak	SARL GAMIETA	6 575.75 €
8	Tindu lanak	SARL PEYO INDART	22 120.35 €
9	Elektrizitatea	SUDELEC COTE BASQUE	29 997.65 €
10	Hoditeria - Haizeztapena	SARL FAUTHOUX	18 911.63 €
			<hr/> 177 316.79 €

11 boz alde eta 1 abstentzio.

Dirulaguntza galdatzeko BEH dosierra prest da, frantses estatuko zerbitzuei igorriko zaie deliberamendua izenpetu bezain laster, eta, bistan da, obrak hasi aitzin.

### **2. Denbora ez osoko teknika laguntzaile lanpostu ez iraunkor baten sortzea**

Teknika laguntzaile lanpostu ez iraunkor baten sortzeko proposamena (13 oreaan asteen), Catherine BELLECAVE anderearen lana aldi bateko emendatu baita.

Aho batez onartua.

### **3. Denbora ez osoko teknika laguntzaile lanpostu iraunkor baten sortzea**

Teknika laguntzaile lanpostu baten sortzeko proposamena (herriko gelen mantentze langilea) 13 orenez astean.

Aho batez onartua.

Bi deliberamendu horiek arauen arabekoak dira, eta lanpostu berari doazkie; behin betiko finkatzekoa da lanpostua.

#### **Gainerako gaiak**

- Mozteko egur lota eman zaio Gérard SOULIGNAC jaunari.
- HTHP: inkesta publikoaren txostena eta lurralde eremuaren bilkura.  
2019ko azaroaren 4tik abenduaren 5era iragan zen inkesta publikoaren ondotik, txostenak erakutsi du 469 ohar izan direla orotara 11 herrietarako (Aiherrako: 31 lursail eraikigarri galdatu dira, zatikatze berriak egiteko 5 eskaera eta lurraren helburua aldatzeko 7 eskaera) Espazioaren erabiltzea: eraikigarri izan litezkeen hektareen kopurua 18tik (HTHP gabe) 5,77ra iragan da (HTHPekin).  
Pertsona Publiko asoziatuen iritziak.  
Dokumentu horiek guztiak Herriko Etxean ikus daitezke.  
Euskal Elkargoaren behin betiko erabakiaren prestatzeko dokumentuek otsaileko lehenbiziko astean behar lukete prest izan.
- GOZATEGIA ostatu-jatetxearen alokatzea-kudeaketa: 6 dossier errezibitu ditugu; hautagaiek elkarrizketa bat beharko dute egin herriko kontseilari batzuekin otsail hastapenean.
- Herriko jantegia behin behineko plantan ezartzea: jantegiaren handitze obrak laster hasiko dira; erabaki da jantegia Denen Etxearen gela ttipian eginen zela obrek iraunen duten denboran. Ontsalaz 5 hilabete beharko lukete iraun.
- Lur-erretzeak: baitezpada deklaratu behar dira.